

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xabier Oiarbide Oliden

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1937-2021)*

Aurkibidea



Biografia



Zortzi senidetan gazteena. Aita Mutiloakoa zuen eta ama zumaiaarra; lanak eraman zituen biak Pasai Antxora, eta hantxe ezagutu zuten elkar: aita portuan aritu zen lanean, eta ama neskame moduan joana zen Pasaiara. Eskola nazionaletan ibili zen Xabier, eta 12 urterekin Erreteriarra bidali zuten fraideengana. Gazterik hasi zen Luzuriaga lantegian lanean; 14 urte egin zituen han, eta ondoren 13 urte josteko makina industrialak egiten zituen PAFF lantegian. Beste tailer batzuetan ere jardun zuen lanean.

Zintak

PAS-040

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2016-01-25
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Donostian jaio eta Pasaiara bizitzera

- **Erref:** PAS-040/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Donostian jaio zen, eta bi egunetara Pasai Antxora etorri zen. Altzan bizi ziren gurasoak lehenago. Zortzi senide ziren.

2. Aita Goierrikoa eta ama Zumaiakoa

- **Erref:** PAS-040/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita Goierrikoa zen, ama zumaiarra; baserritarrak biak. Aita gaztetan meategi batean aritu zen lanean. Ondoren Saran trenbidea eraikitzen, eta, azkenik, pasaiaiko portuan. Ama neskame egon zen.</p>

3. Portuko itsasontziek denetarik ekartzen zuten

- **Erref:** PAS-040/004
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Denetik ekartzen zuten itsasontziek: janaria, burnia...</p>

4. Anaiak arrantzaleak eta merkatariak

- **Erref:** PAS-040/006
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Lanbideak

Laburpena:

Arrantzalea zuen anai bat. Besteak merkatari.

5. Zapoa zakarrontzira

- **Erref:** PAS-040/007
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Itsasontzi asko ikusten zituen txikitan. Zapoa bota egiten zuten, Katalunian jaten hasi ziren arte.</p>

6. Legatza erregina

- **Erref:** PAS-040/009
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:07:27. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Legatza
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>Legatz asko jaten zen. Toneladaka arrain eramaten zituzten kamioietan Molinaora.</p>

7. Emakumeak arrain-saltzaile

- **Erref:** PAS-040/011
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:08:02. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Bajurako arrantza batez ere San Pedron eta San Juanen. Antxon ez zegoen horrelakorik, merkantzia soilik. Bajurako arrantzan antxoa, txitxarroa eta berdelak ziren nagusi. Emakumeek saltzen zuten arraina; buru gainean zeramaten.</p>

8. Platera, arraina saltzeko neurritzat

- **Erref:** PAS-040/012
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Platera zen arraina saltzeko neurria. Trukea ere asko egiten zen. Aitak gaez itsasontzi bat zaintzen zuen. Aitak galdara bero mantentzen zuen.</p>

9. Arrantzaleak Ternua, Irlanda eta Eskoziara

- **Erref:** PAS-040/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

<p>Alturako arrantzan batzuk Ternuara joaten ziren. Beste batzuk Irlandara, Eskoziara... legatz bila. Bajurako arrantzakoak, berriz, inguruan. Toneladaka arrain bota eta oparitzen zituzten. Zapi barnean gordetzen zuten arraina gero etxera eramateko.</p>

10. Portuan eta tailer txikietan zegoen lana

- **Erref:** PAS-040/015
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Lanbideak

Laburpena:

<p>Pasai Antxon industria eta tailer txiki asko zeuden, mekanikakoak etab. Luzuriaga erabat handitu arte, tailer gehienak mekanikoak, arotzak...</p>

11. Ikasketak eskola publikoan

- **Erref:** PAS-040/017
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:14:39. **Bukatu:** 00:15:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola publikora joan zen. Ondoren fraide eskola batera Erreenteriara. Bi urteren buruan lanean hasi zen.</p>

12. Eskolan neskak eta mutilak bereizita

- **Erref:** PAS-040/019
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:15:36. **Bukatu:** 00:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Eskola nazionalak frontoi ondoan zeuden. Neskek beheko pisuan ikasten zuten eta mutilek goikoan.</p>

13. Maisua errepublikarra

- **Erref:** PAS-040/020
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:16:03. **Bukatu:** 00:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Francoren garaian dena erderaz eskolan. Ez da "Cara al sol" abesteaz gogoratzen. Maisua errepublikarra zen.

14. "Trintxerpe, Galiziako bosgarren probintzia"

- **Erref:** PAS-040/021
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:17:11. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Euskara » Euskararen egoera
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Hiru baserriz osaturiko auzoa zen Antxo, ondoren kanpotarrez bete zena. Galiziarak etorri ziren lehenik: "La quinta provincia gallega".

15. Gurasoek ez zekiten ia erdaraz

- **Erref:** PAS-040/022
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Euskaraz Pasaian oso gutxi egiten zen, kanpotarren ondorioz. Gurasoek ez zekiten ia erderaz, baina haiekin erderaz hitz egiten zuten seme-alabek.

16. Izebaren baserrira euskara ikastera

- **Erref:** PAS-040/023
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:20:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Euskara ikasteko erdaraz ez zekien izebaren baserrian hilabete pasa zuen. Erdaraz hitzen bat esanez gero, ez zioten kasurik egiten.</p>

17. Familian erdaraz umetan, euskaraz heldutan

- **Erref:** PAS-040/024
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:20:31. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Anai-arrebekin erdaraz umetan. Bere anai-arreba euskaldunek sartu zuten bera euskara elkartean. Horrela, semeari eta bilobei euskara transmititu die.</p>

18. Ikastolak elizari eta EAJri esker

- **Erref:** PAS-040/026
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Etorkinak Antxora Cáceres eta Badajozetik etorri ziren. Lehenengo Errenteriara eta ondoren Pasaia etorri ziren. Pasaia erdalduna dela uste du, dakitenek sakrifizioz ikasia. Bere ustez elizari eta EAJri esker ikasi da euskaraz. Ikastolak haiei esker sortu zirela dio.

19. Ikastolen aldeko mugimenduan ibili zen

- **Erref:** PAS-040/027
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Ikastolen aldeko mugimenduan ibili zen. Inguruko lehenengo ikastola 1965. urte inguruan sortu zen, elizak utzitako lokal batean, debekaturik baitzegoen.

20. Alaba ikastolara

- **Erref:** PAS-040/028
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:26:51. **Bukatu:** 00:27:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Bere lehen alaba 3 urterekin sartu zen ikastolan. </p>

21. Dena buruz ikasten zuten eskolan

- **Erref:** PAS-040/030
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskolan gutxi ikasi zuen. Alperra zela dio. Fraideetan, ordea, asko. Dena buruz ikasten zuten. Jolas egitea asko gustatzen zitzaion. Frontoian jolasten zuten.</p>

22. Etxean berogailurik ez

- **Erref:** PAS-040/031
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:28:56. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Gazteena zenez enkargu asko egin behar zituen. Etxean ez zuten berogailurik: botilak ur beroz bete etab. egiten zuten. Ura eta argindarra bazituzten. Balde batean bainatzen ziren denak.

23. Arropa eskuz garbitzen zuen amak

- **Erref:** PAS-040/032
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:33:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Sukalderako ikatza erabiltzen zuten, baita egurra ere. Hotza pasatzeaz gogoratzen da. Ama Molinaora joaten zen arropa garbitzera. Geroago, garbigailua eta lehorgailua jarri zituzten.

24. Irrati bakarra eraikin osoan

- **Erref:** PAS-040/033
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:33:29. **Bukatu:** 00:34:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

<p>Irratia: etxe osoan bakarra zegoen, hamahiru urterekin ezagutu zuen. Telebista, berriz, beranduago.</p>

25. Gerraostean goserik ez

- **Erref:** PAS-040/035
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:36:23. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraosteko urteetan ez du gosea pasatzea oroitzen, trukea egiten baitzuten eta anaiak kanpoan baitzeuden. Kontrabando handia zegoen Pasaian: tabakoa, droga, janaria...

26. Kontrabandoa gerraostean

- **Erref:** PAS-040/036
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:39:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Kontrabandoan itsasontziz ekartzen zuten dena. Eskupekoa eman eta tabakoa itsasontzitik ateratzea lortzen zuten.

27. Udaletxeak Antxo baztertuta

- **Erref:** PAS-040/038
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Antxo beti itxusia izan dela dio. Udaletxeak bazterturik zuela, dirua soilik San Pedron eta Donibanen mugitzen zela. Arrantzaleek Ternuatik urtean bi aldiz etorri, eta edaten pasatzen zituzten egunak.</p>

28. Luzuriagan lanean gazte-gaztetatik

- **Erref:** PAS-040/040
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:43:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:

<p>Hamalau urterekin Luzuriagan hasi zen mekaniko gisa lanean. Bi mila langile inguru zeuden hasi zenean. Greba eskatzen zutenean tailerretan, bulegoek ez zituzten babesten.</p>

29. Luzuriaga: bulegoetan emakumeak, tailerretan gizonak

- **Erref:** PAS-040/041
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:43:37. **Bukatu:** 00:44:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Luzuriagan denetatik egiten zuten. Bulegoetan emakumeak zeuden, ondoren tailerretan ere hasi ziren lanean.</p>

30. Balio ez zuten piezak, itsasora

- **Erref:** PAS-040/042
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:44:27. **Bukatu:** 00:47:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Ingurugiroa
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza

Laburpena:

<p>Balio ez zuten piezak uretara botatzen zituzten. Burdina kanpotik ekartzen zuten, baita beraiek egin ere. Bost bat kamioi ateratzen ziren lantegitik balio ez zuten piezak itsasora botatzeko.</p>

31. Soldata igotzeko grebak

- **Erref:** PAS-040/043
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:

<p>Grebetan dirua eskatzen zuten, ondo ordaintzen zuten arren. Orokorrean lortzen zuten jarritako helburua.</p>

32. Koinataren enpresan hamahiru urtez

- **Erref:** PAS-040/044
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:48:26. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Hamalau urte ondoren, Luzuriaga utzi eta koinataren enpresan aritu zen josteko makinak saltzen, hamahiru urtez. Ondoren, langabezian gelditu zen.</p>

33. Bizkarrezurra zela eta lana utzi zuen

- **Erref:** PAS-040/045
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:54:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Langabezian gelditu, eta olio garbiketa egiten zuen enpresa batean sartu zen. Ondoren Errenteriako enpresa alemaniar batean sartu zen; hamabi urtez egon zen. Bizkarrezurra zela eta lana egiteari utzi zion.

34. Hogeita hamabost taberna Pasai Antxon

- **Erref:** PAS-040/047
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:54:48. **Bukatu:** 00:56:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Hogeita hamabost taberna zeuden Pasai Antxon, denetariko dendak. Atsedenetan beti tabernaz taberna ibiltzen ziren.</p>

35. Emakumeek debekaturik zuten tabernetan sartzea

- **Erref:** PAS-040/048
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:56:18. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Ardoa, anisa eta koignaka edaten ziren. Puroak erre. Emakumeek debekaturik zuten tabernetan sartzea</p>

36. Zinema Pasai Antxon: "Cine Moderno"

- **Erref:** PAS-040/049
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 00:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Zine aretoa zegoen Pasai Antxon, baina telebista eta teknologia berriak zabaltzean itxi egin zuten. "Cine Moderno" zuen izena, eta egunero-egunero egiten zuen lan. Igandetan haurrentzako filmak jartzen zituzten. Bakeradak nagusi ziren.</p>

37. Igandero dantzara eta zinemara

- **Erref:** PAS-040/050
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:59:11. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Andregaiarekin joaten zen zinera igandero. Dantza ere igandero egiten zuten. Batzuetan Erreenteriara ere joaten ziren dantzara baina bizitza Antxon egiten zuten. Oiartzungo erromeria oso famatua zen.</p>

38. Emazteak etxe azpiko ile-apaindegian egiten zuen lan

- **Erref:** PAS-040/051
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:00:30. **Bukatu:** 01:02:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Emaztea 16-17 urterekin Antxora etorri zen, ile-apainketa ikasteko. Xabierren ama egunero bere ile-apaindegira joaten zen. Arratsalde batean ile-apaindegiko nagusiak autobusera laguntzeko esan zion, eta horrela hasi zen haien harremana. Emaztea Erreenteriakoa da, Gaztaño auzokoa. Aita nafarra eta ama Azkoitikoa zituen.</p>

39. Gabonetako kanta bat

- **Erref:** PAS-040/053
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:02:52. **Bukatu:** 01:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Gabonetako kantak amak irakatsi zizkion, beti abestu egiten baitzituen.</p>

40. Eguberritan parrandarik ez

- **Erref:** PAS-040/055
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:04:27. **Bukatu:** 01:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlujioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Garai batean ez zen Eguberritan parrandan ateratzen. Olentzero gisa atera da bera, baita bere anaia ere. Ezkerrak ekarri zuen Olentzero. Umetan, berriz, erregeak ospatzen zituzten.</p>

41. Umetan jostailu gutxi

- **Erref:** PAS-040/056
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:06:15. **Bukatu:** 01:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jostailu gutxi zituzten umetan. Ez zegoen ohitura ez dirurik horretarako. Umetan futboleak jolasten ziren, lapurretan, txapekin...

42. Gazteak eta teknologia berriak

- **Erref:** PAS-040/057
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:08:08. **Bukatu:** 01:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Haurrek ez dakitela jolasten dio, makinekin itsuturik daudela. Ez dago elkarriketa bat edukitzerik gazteekin. Asko aldatu da dena.</p>

43. Izotz fabrika San Pedron eta Trintxerpen

- **Erref:** PAS-040/059
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:10:55. **Bukatu:** 01:12:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:

<p>Danborreroa, bandoa jotzen zutenak, ikazkinak, izotza ebakitzen zutenak... desagertu dira. Izotza hozkailurako. Bloketan moztzen zuten, etxeetarako eta tabernetarako. Garai batean edarian ez zen izotzik botatzen. Izotz fabrika zegoen San Pedron eta Trintxerpen.</p>

44. Egunero baserritarrak azokan

- **Erref:** PAS-040/060
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:12:43. **Bukatu:** 01:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserritarrak ere etortzen ziren Pasai Antxora, Altzatik, Molinaotik etab.

Hasiera batean astoan, ondoren autoan. Azokan saltzen zuten: haragia, arraina, barazkiak... Egunero zegoen azoka.

45. Esne-saltzailea etxez etxe

- **Erref:** PAS-040/062
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:14:04. **Bukatu:** 01:15:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Esne-saltzaileak etxez etxe joaten ziren, Errenteriakoak eta Oiartzungoak. Etxeko sobrak ere Molinaoko gizon batek jasotzen zituen, txerriari emateko; "txerrijana". Aitak baratze bat eduki zuen, baina gehiena azokan erosten zuen amak.</p>

46. Igandero mezara; auto gutxi Antxon

- **Erref:** PAS-040/063
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:15:43. **Bukatu:** 01:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Mezetara joatera beharturik zeuden. Igandero-igandero mendira joan aurretik joaten ziren. Mendira, berriz, autobusez edo trenez joaten ziren eta ondoren oinez. Ia ez zegoen autorik, soilik dirudunek. Kamioiak, berriz, bai. Taxi bakarra zegoen Antxon.</p>

47. Mendi elkarteko kide gaztetatik

- **Erref:** PAS-040/064
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:17:24. **Bukatu:** 01:18:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Mendi elkartea zegoen Pasai Antxon, Jaizkibel. Gaztetatik izan zen Trintxerpeko mendi elkartearen parte. Mendian, lanean eta apur bat parrandan pasatzen zuen denbora.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com